# PROGRAMA MUNICIPALES DEBA 2023

## LA FUERZA DE LO PÚBLICO

*PUBLIKOTASUNAREN INDARRA*

ORAIN DEBA

| UNA NUEVA ALTERNATIVA | ALTERNATIBA BERRIA |
|---|---|
| Para comenzar, desde la plataforma ciudadana **ORAIN DEBA** quiero trasladaros un cariñoso saludo a todas y todos los debarras. | Lehenik eta behin, **ORAIN DEBA** herri plataformatik agur bero bat bidali nahi dizuet debar guztioi. |
| Nuestra agrupación está formada por personas diversas que en estos últimos años hemos venido percibiendo que el desarrollo del pueblo está estancado y que la política municipal necesita, sin mayor demora, de nuevas energías, perspectivas e ideas. | Pertsona anitzak elkartu gara gure taldean, herriaren garapena azken urteotan erabat geldituta egon dela-eta, udal-politikak, luzapen gehiagorik gabe, indar, ikuspegi eta ideia berriak behar dituela ikusi baitugu. |
| Esta es la primera vez que nos presentamos a unas elecciones locales y lo hacemos con ilusión, ganas de trabajar y con el deseo de poder colaborar positivamente en la modernización del municipio, aportando nuestra manera de entender este proyecto común, tan importante para todas y todos, que es el pueblo en el que vivimos. | Udal hauteskundeetara aurkezten garen lehen aldia da. Ilusioz, lan egiteko gogoz eta udalerria gaurkotzeko lanetan positiboki parte-hartzeko irrikan gatoz. Eta guztiontzat horren garrantzitsua den proiektu komuna, gure herria, alegia, ulertzeko dugun modu propioa dakarkizuegu. |
| Desde aquí os hacemos saber que nos ponemos a vuestra disposición para atender todas las cuestiones que os preocupen y que consideréis de interés comunitario. | Jakin ezazue zuen esanetara gaudela, dituzuen kezka eta interes publikoko gai guztiei erantzuteko. |
| Con esta voluntad de trabajo y de mejora, las mujeres y hombres de **ORAIN DEBA** os pedimos vuestro voto y la confianza para conseguir una representación que nos permita contribuir decididamente en los planes municipales y, sobre todo, para poner sobre la mesa los nuevos retos que debe encarar nuestro pueblo en los próximos años. | Lanerako eta hobetzeko borondatearekin **ORAIN DEBA**ko emakume eta gizonok zuen botoa eta konfiantza eskatu nahi dizkizuegu udal planetan ekarpen irmoak egitea ahalbideratuko digun ordezkaritza lortu ahal izateko, eta, bereziki, gure herriak datozen urteetan izango dituen erronka berriak mahai gainean jartzeko. |
| Con vuestra confianza lo haremos posible. | Zuen konfiantzarekin posible egingo dugu. |
| Muchas Gracias. | Eskerrik asko. |
| Isidro Aristi Oruezabal<br>**Candidato a la alcaldía por la agrupación ORAIN DEBA** | Isidro Aristi Oruezabal<br>**ORAIN DEBA taldeko alkategaia** |

| | |
|---|---|
| **¿QUÉ QUEREMOS HACER?**<br><br>Necesitamos un Deba mejor, un Deba comprometido con el bienestar social de todas las personas, un Deba abierto a diferentes ideas y formas de pensar.<br><br>Nos comprometemos a publicar y a facilitar el acceso a toda la información necesaria para posibilitar el seguimiento ciudadano de la acción del gobierno municipal. Además, estableceremos que las comisiones informativas sean abiertas al público y que los plenos tengan servicio de traducción. Impulsaremos una participación ciudadana efectiva.<br><br>Para todo ello, es imprescindible dotarnos de servicios públicos de calidad, de una estructura organizativa fuerte y estable que sea capaz de responder a las necesidades del ayuntamiento. Analizaremos la plantilla municipal y actuaremos en el ámbito de personal con responsabilidad. | **ZER EGIN NAHI DUGU?**<br><br>Deba hobeago bat behar dugu, herritar guztion ongizatearekin konprometitutako Deba, askotariko ideia eta pentsaeretara irekia.<br><br>Udal gobernuaren jardueraren jarraipena herritarrek egin ahal izateko beharrezkoa den informazio guztia argitaratzeko eta emateko konpromisoa hartua dugu, informazio-batzordeak herritarrentzako irekitzea eta osoko bilkuretan itzulpen-zerbitzua eskaintzea finkatuko dugu. Herritarren parte-hartze eraginkorra bultzatuko dugu.<br><br>Horretarako guztirako, ezinbestekoa da Udalaren beharrei erantzuteko gai izango diren kalitatezko zerbitzu publikoez, antolaketa-egitura sendo eta egonkorraz hornitzea. Udal-plantilla aztertuko dugu, eta langileriaren arloan erantzukizunez jardungo dugu. |
| **HACIENDA Y FINANZAS**<br><br>Nos preocupa la situación actual del Ayuntamiento por el desequilibrio entre ingresos y gastos ordinarios. Es imprescindible una gestión más rigurosa en el control del gasto.<br><br>La puesta en marcha de los desarrollos urbanísticos ya aprobados generará un incremento de ingresos mediante los cuales se podrán desarrollar las inversiones que Deba necesita y que nos comprometemos a llevar a cabo. | **OGASUNA ETA FINANTZAK**<br><br>Diru-sarreren eta gastu arrunten arteko desoreka dela-eta Udalaren egungo egoerarekin kezkatuta gaude. Ezinbestekoa da gastu-kontrolaren kudeaketa zorrotzagoa egitea.<br><br>Dagoeneko onartuta dauden hirigintza-garapen planak martxan jartzean diru-sarrerak gehituko dira, eta funts horiekin Debak behar dituen inbertsioak egin ahal izango ditugu, guztiak gauzatzeko konpromisoa hartzen dugu. |
| **PROMOCIÓN Y DESARROLLO ECONÓMICO Y RURAL**<br><br>Reforzaremos el papel del mercado e impulsaremos la producción y consumo de kilómetro cero, en estrecha colaboración con | **EKONOMIA ETA LANDA GARAPENA ETA SUSTAPENA**<br><br>Merkatua indartuko dugu eta zero kilometroko ekoizpena eta kontsumoa bultzatuko ditugu, tokiko edo eskualdeko landa-garapeneko |

| | |
|---|---|
| las asociaciones de desarrollo rural locales o comarcales.<br><br>Promoveremos la economía circular, mediante el desarrollo de proyectos de economía social, comercio justo, cooperativas y espacios autogestionados.<br><br>Implementaremos medidas de protección para el comercio local. Realizaremos campañas de concienciación sobre la importancia del comercio local como actividad generadora de empleo y dinamizadora de la vida local, reorientando las campañas de promoción del comercio y la hostelería hacia la mejora del servicio y no hacia un incremento del consumo. | elkarteekin lankidetza estuan.<br><br>Ekonomia zirkularra sustatuko dugu, ekonomia sozialeko, bidezko merkataritzako eta kooperatibetako proiektuak eta autogestionatutako guneak garatuz.<br><br>Tokiko merkataritza babesteko neurriak ezarriko ditugu. Herriko merkataritzak enplegua sortzeko eta tokiko bizitza dinamizatzeko duen garrantzia nabarmenduko duten kontzientziazio-kanpainak egingo ditugu, zerbitzua hobetzera birbideratuz, ez kontsumoa handitzera. |
| **URBANISMO**<br><br>**ESTUARIO**<br><br>Es un proyecto vital para Deba. La regeneración de la margen izquierda de la ría es un tema pendiente al que no se le ha dado solución. Conscientes de la complejidad del mismo trataremos de impulsar el plan diseñado por Debegesa y consensuado con el Ayuntamiento de Mutriku en el que se incluye: una nueva pasarela, una dársena deportiva, el centro de acogida del Geoparque y plazas de aparcamiento.<br><br>Fomentaremos el dragado de la ría para mejorar su navegabilidad.<br><br>**ALAMEDA**<br><br>Los jardines, los parques, las zonas verdes o el arbolado son elementos clave para mantener una buena calidad de vida, minimizar los efectos del cambio climático y favorecer el bienestar de las personas. | **HIRIGINTZA**<br><br>**ESTUARIOA**<br><br>Debarako hil edo biziko proiektua da. Ez zaio irtenbiderik eman eta itsasadarraren ezkerraldea berroneratzea egiteko dago. Gaia konplexua dela jakinda, Debegesak diseinatutako eta Debako eta Mutrikuko udalek adostutako plana bultzatzen saiatuko gara. Plan horretan jasota daude: pasabide berri bat, kirol-dartsena bat, Geoparkeko harrera-zentroa eta hainbat aparkaleku.<br><br>Itsasadarra dragatzea sustatuko dugu, nabigagarritasuna hobetzeko.<br><br>**ZUMARDIA**<br><br>Lorategiak, parkeak, berdeguneak edo eremu arboladunak funtsezko elementuak dira bizi-kalitate ona mantentzeko, klima-aldaketatik eratorritako ondorioak minimizatzeko eta pertsonen ongizatea bultzatzeko.<br><br>Zumardia zaindu, mantendu eta babestu beharreko ondarea da, etorkizuneko |

| | |
|---|---|
| La Alameda es un legado que debemos cuidar, mantener y proteger para que las futuras generaciones la puedan disfrutar. | belaunaldiek ere goza dezaten. |
| **PASEO CUBIERTO** | **PASEALEKU ESTALIA** |
| La poca transparencia y la falta de información sobre el proyecto presentado a través de Debegesa a los Fondos Next nos impide dar una opinión al respecto. Una vez tengamos acceso al proyecto analizaremos su viabilidad e idoneidad. En todo caso, apostamos por la limpieza, mejora y puesta en valor de este elemento patrimonial. | Gardentasun eta informazio faltagatik Debegesaren bidez Udalak Next Funtsetara aurkeztutako proiektuari buruzko iritzirik ezin dugu eman. Dokumentua lortzen dugunean proposatutakoaren bideragarritasuna eta egokitasuna aztertuko ditugu. Nolanahi ere, ondare-elementu hau garbitu, hobetu eta balioan jartzearen aldekoak gara. |
| **VIVIENDA** | **ETXEBIZITZA** |
| La vivienda es un derecho y es nuestra responsabilidad garantizar que se cumpla. | Etxebizitza eskubidea da, eta eskubide hori bermatzea gure erantzukizuna da. |
| Elaboraremos un censo de viviendas vacías con el objetivo de aumentar el número de pisos en alquiler. | Hutsik dauden etxebizitzen errolda egingo dugu, alokairuzko etxe kopurua handitzeko helburuarekin. |
| Promoveremos las condiciones necesarias y las normas pertinentes para el desarrollo de: | Eremu hauek garatzeko baldintzak eta arauak sustatuko ditugu: |
| ELIZBURU: Finalizar el proyecto de las viviendas tasadas. | ELIZBURU: etxebizitza tasatuen proiektua amaitu. |
| AMILLAGA: “Desbloquear” el traslado definitivo de los restos fúnebres al nuevo cementerio con el máximo respeto y concluir el vial hasta la N-634. Con ello daremos luz verde a la construcción de las viviendas libres y tasadas de Amillaga, renegociando la posibilidad de que haya el máximo número posible de viviendas protegidas. | AMILLAGA: hilerriaren toki aldaketa desblokeatu eta gorpuzkiak errespetu osoz hilerri berrira behin betiko eraman. N-634 errepiderako bidea amaitu eta horrela, Amillagako etxebizitza libreei eta tasatuei argi berdea emango diegu, ahalik eta etxebizitza babestu gehien egoteko aukera berriz negoziatuta. |
| OSIO: Aprobar el Plan General de Ordenación Urbana de Osio y el proyecto de viviendas donde se | OSIO: Osioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra eta etxebizitzen proiektua onartu, posible den etxebizitza babestuen kopuru handiena jasoz, 150 etxebizitza sozial inguru. |

| | |
|---|---|
| incluirán el máximo número posible de vivienda social, en torno a 150.<br><br>**APARCAMIENTOS**<br><br>Revisaremos la ordenanza municipal para adecuarla a las necesidades del pueblo buscando un equilibrio entre residentes y visitantes.<br><br>Realizaremos campañas para concienciar a las y los propietarios de garajes a que utilicen sus plazas y así posibilitar más aparcamientos en la vía pública.<br><br>Estudiaremos la viabilidad de un parking subterráneo o en superficie.<br><br>Insistiremos en la mejora del transporte público que conecta con Deba incrementando las frecuencias.<br><br>Trabajaremos en una solución definitiva y consensuada del trazado del ferrocarril.<br><br>**CALLES**<br><br>Prestaremos una especial atención a la accesibilidad, a la limpieza y al mantenimiento de aceras, zonas peatonales, mobiliario urbano, fachadas (grafitis, carteles…) y cárcavas municipales. | **APARKALEKUAK**<br><br>Udal ordenantza berrikusiko dugu herritarron beharretara egokitzeko, bertakoen eta bisitarien arteko oreka bilatuz.<br><br>Garaje-jabeek beren plazak erabil ditzaten kontzientziatzeko kanpainak egingo ditugu, bide publikoan aparkatzeko toki gehiago gera dadin.<br><br>Lurpeko edo lurrazaleko aparkaleku baten bideragarritasuna aztertuko dugu.<br><br>Behin eta berriz eskatuko dugu Debarekin lotura duten garraiobide publikoak hobetzea eta zerbitzuen maiztasunak handitzea.<br><br>Trenbidearen trazaduraren behin betiko irtenbide adostua lortzeko lan egingo dugu.<br><br>**KALEAK**<br><br>Arreta berezia jarriko dugu irisgarritasun, garbitasun eta hiri-mantenuan: espaloiak, oinezkoen guneak, hiri-altzariak, fatxadak (grafitiak, kartelak…) eta udal-karkabak, besteak beste. |
| **MEDIO AMBIENTE**<br><br>Remodelaremos el paseo de la playa y de la ría teniendo en cuenta las afecciones del cambio climático.<br><br>Recuperaremos y mejoraremos el mirador y el paseo Sorozabal.<br><br>Revisaremos el Plan de Soberanía Energética Sostenible local para aprovechar el potencial que ofrecen los edificios públicos, cubiertas de viviendas | **INGURUMENA**<br><br>Hondartzako eta itsasadarreko pasealekua birmoldatuko dugu, klima-aldaketak ekarriko dituen ondorioak kontuan hartuta.<br><br>Sorozabal pasealekua eta begiratokia berreskuratu eta hobetuko ditugu.<br><br>Tokiko Energia Subiranotasun Iraunkorraren Plana berrikusiko dugu, eraikin publikoek, etxebizitza komunitarioen estalkiek, industrialdeek, pergolek, markesinek eta |

| | |
|---|---|
| comunitarias, polígonos industriales, pérgolas, marquesinas, etc.<br><br>Continuaremos realizando acciones de comunicación y concienciación para incrementar la tasa de reciclaje. | abarrek eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatzeko.<br><br>Komunikazio- eta kontzientziazio-ekintzak egiten jarraituko dugu birziklatze-tasa handitzeko. |
| **SERVICIOS SOCIALES E IGUALDAD**<br><br>Trabajaremos para que UN MODELO NUEVO DE RESIDENCIA DE MAYORES en Deba sea una realidad.<br><br>Garantizaremos una suficiente y adecuada prestación del Servicio de Ayuda a domicilio en aquellas personas que puedan necesitar atención en casa, para una mejora de su autonomía y la permanencia en su entorno cercano.<br><br>Reforzaremos los programas de intervención socioeducativa familiar de cara a garantizar el acceso a los recursos y derechos de la infancia y la adolescencia y de sus familias.<br><br>Trabajaremos en la defensa de los Derechos Humanos y la Ciudadanía inclusiva.<br><br>Favoreceremos la participación de las personas migradas que residen en el municipio y trabajaremos por su integración con especial atención a jóvenes y menores.<br><br>Seguiremos impulsando el programa de empleo municipal de personas con perfiles de difícil acceso al mercado laboral y reservaremos en las ofertas de empleo público, tal y como establece la ley, plazas para personas con diversidad funcional.<br><br>Impulsaremos el proyecto de la huerta ocupacional. | **GIZARTE ZERBITZUAK ETA BERDINTASUNA**<br><br>Lan egingo dugu Deban ADINEKOEN EGOITZA EREDU BERRI BAT errealitate bihur dadin.<br><br>Etxean arreta behar dutenek etxeko laguntza-zerbitzu nahikoa eta egokia izatea bermatuko dugu, haien autonomia hobetu eta ingurune hurbilean jarraitu dezaten.<br><br>Familia arloan gizarte eta hezkuntza eskuhartze programak indartuko ditugu, haurren eta nerabeen eta haien familiei baliabide eta eskubideetara sarbidea bermatzeko.<br><br>Giza eskubideen eta herritartasun inklusiboaren defentsan lan egingo dugu.<br><br>Udalerrian bizi diren pertsona migratuen parte-hartzea bultzatuko dugu, eta haien integrazioaren alde lan egingo dugu, arreta berezia gazte eta adingabeetan jarriz.<br><br>Lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituztenentzako udal enplegu programak bultzaten jarraituko dugu eta dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako plazak gordeko ditugu lan-eskaintza publikoetan, legeak ezartzen duen moduan.<br><br>Baratze okupazionalaren proiektua bultzatuko dugu. |
| **FEMINISMO** | **FEMINISMOA** |

| | |
|---|---|
| Desarrollaremos una estrategia municipal para lograr el empoderamiento de las mujeres, sumando las sinergias y esfuerzos de todos los agentes del municipio, y en especial, del movimiento y asociaciones feministas de la localidad. | Udal-estrategia bat garatuko dugu emakumeen ahalduntzea lortzeko, udalerriko eragile guztien sinergiak eta ahaleginak batuz, eta, bereziki, herriko mugimendu eta elkarte feministenak. |
| **JUVENTUD**<br><br>Mejoraremos el mantenimiento de las instalaciones infantiles adecuándolas a las necesidades de las y los niños con diversidad funcional.<br><br>Impulsaremos la construcción de un parque infantil cubierto.<br><br>Fomentaremos el asociacionismo juvenil y la implicación de la población joven en la vida pública y en los ámbitos de decisión municipales.<br><br>Seguiremos apoyando las ayudas a la emancipación.<br><br>Valoramos positivamente el trabajo realizado por el Gazteleku en los últimos años. Mantendremos una relación continua y cercana para intentar dar respuestas a sus necesidades.<br><br>Estableceremos programas participativos para que la juventud pueda decidir y emplear recursos públicos, como equipamientos o espacios autogestionados y desarrollaremos actividades de ocio alternativas. | **GAZTERIA**<br><br>Haur-parkeetan mantenu-lanak hobetuko ditugu, eta dibertsitate funtzionala duten haurren beharretara ere egokituko ditugu.<br><br>Haur-parke estali bat eraikitzea bultzatuko dugu.<br><br>Gazteen asoziazionismoa eta gazteen inplikazioa bizitza publikoan eta Udalaren erabaki-eremuetan sustatuko ditugu.<br><br>Emantzipaziorako laguntzei babesa emango diegu.<br><br>Positiboki baloratzen dugu Gaztelekuak azken urteotan egindako lana. Harreman jarraitu eta estua izango dugu, haien beharrei erantzuten saiatzeko.<br><br>Parte-hartze programak egingo ditugu gazteek erabaki eta baliabide publikoak erabil ditzaten, hala nola ekipamendu edo espazio autogestionatuak eta aisialdiko jarduera alternatiboak garatuko ditugu. |
| **DEPORTE**<br><br>Aprovecharemos los espacios públicos para fomentar el deporte al aire libre e impulsaremos la creación de pistas de pádel.<br><br>Ampliar horarios y un mejor uso y mantenimiento de las instalaciones existentes posibilitará el acceso de las áreas deportivas a toda la población. Fomentaremos una relación directa y | **KIROLA**<br><br>Espazio publikoak baliatuko ditugu aire zabaleko kirola sustatzeko eta padeleko pistak bultzatuko ditugu.<br><br>Kirol-guneetako ordutegiak luzatzeak eta instalazioak hobeto erabiltzeak eta mantentzeak kirol-instalakuntzak herritar guztien eskura egotea ekarriko du. Herriko kirol-erakunde guztiekin harreman zuzen eta |

| | |
|---|---|
| cercana con todas las entidades deportivas locales. | hurbila sustatuko dugu. |
| **CULTURA**<br><br>Queremos que nuestra oferta cultural sea variada y accesible a todas y a todos, por ello trabajaremos en potenciar la participación de todas aquellas personas, asociaciones y grupos culturales. Colaboraremos en la organización de eventos y en el desarrollo de nuevos proyectos.<br><br>Vamos a apostar por fomentar la actividad cultural de nuestro municipio a través de tres objetivos:<br>- Reorganización de las infraestructuras existentes y estudiar la creación de un espacio de conciertos y usos múltiples.<br>- Fortalecimiento de la identidad cultural de Deba asegurando la integración y la transmisión cultural<br>- Impulso a la autogestión.<br><br>Además, apostaremos por la puesta en valor y el mantenimiento de nuestros bienes patrimoniales haciendo especial hincapié en la iglesia Santa María y en su claustro. | **KULTURA**<br><br>Gure kultur eskaintza anitza izatea eta guztiontzat eskuragarri egotea nahi dugu; horregatik, pertsona, elkarte eta kultur talde guztien parte-hartzea sustatzeko lan egingo dugu. Ekitaldiak antolatzen eta proiektu berriak garatzen lagunduko dugu.<br><br>Gure udalerriko kultur jarduera sustatzearen alde egingo dugu apustu, hiru helburu hauen bidez:<br><br>-Ditugun azpiegiturak berrantolatu eta kontzertu eta erabilera anitzeko espazio bat sortzea aztertu.<br><br>-Debaren nortasun kulturala indartu, integrazio eta transmisio kulturala ziurtatuz.<br><br>-Autogestioa bultzatu.<br><br>Gainera, gure kultur ondarea balioan jarri eta mantenuaren alde egingo dugu apostu, Santa Maria eliza eta bere klaustroan azpimarra jarriz. |
| **EUSKARA**<br><br>Desarrollaremos programas que profundicen en la normalización del uso del euskara en la familia, deporte, ocio, servicios, medios de comunicación etc.<br><br>Continuaremos con las ayudas a los programas de aprendizaje del euskara para jóvenes, personas desempleadas e inmigrantes, así como con los programas para la hostelería y el comercio. | **EUSKARA**<br><br>Familian, kirolean, aisialdian, zerbitzuetan, komunikabideetan eta abarretan euskararen erabileraren normalizazioan sakontzeko programak garatuko ditugu.<br><br>Gazte, langabe eta etorkinentzako euskara ikasteko laguntzak mantenduko ditugu, baita ostalaritzarako eta merkataritzarako programak ere. |
| **TURISMO** | **TURISMOA**<br><br>Debak potentzial handia izan arren, ez du |

| | |
|---|---|
| Pese a su gran potencial Deba no ha sabido aprovechar el tirón turístico, por eso desde ORAIN DEBA tomaremos medidas para fortalecer y fomentar nuevas empresas turísticas. Queremos una oferta alojativa variada y equilibrada y por ello vamos a ofrecer toda nuestra colaboración a la puesta en marcha del nuevo hotel, vamos a regular las viviendas turísticas y vamos a impulsar la creación de un albergue turístico.<br><br>Apoyaremos el desarrollo del Geoparque por su papel activo en la puesta en valor de nuestro patrimonio geológico, en el desarrollo del turismo sostenible, en la cultura y en especial el proyecto HAB (Historiaurreko bailara).<br><br>Potenciaremos la labor y ampliaremos el horario de la oficina de turismo, mejoraremos nuestra imagen y reforzaremos la comunicación y la promoción para dar a conocer todos nuestros recursos turísticos. | turismoaren olatua aprobetxatzen jakin; horregatik, ORAIN DEBAn enpresa turistiko berriak indartzeko eta sustatzeko neurriak hartuko ditugu. Ostatu-eskaintza anitza eta orekatua nahi dugu, eta, horregatik, gure laguntza eskainiko dugu hotel berria martxan jartzeko, etxebizitza turistikoak arautuko ditugu eta aterpetxe turistiko bat bultzatuko dugu.<br><br>Geoparkearen garapena babestuko dugu, gure ondare geologikoari balioa ematen, turismo iraunkorraren garapenean, kulturan eta, bereziki, HAB proiektuan (Historiaurreko bailara) duen zeregin aktiboagatik.<br><br>Turismo bulegoaren jarduna bultzatu eta ordutegia zabalduko dugu, gure irudia hobetuko dugu eta komunikazioa eta promozioa indartuko ditugu gure baliabide turistiko guztiak ezagutzera emateko. |